

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Foru Gobernuak 2016rako 3.478 milioi euroko gastu-muga finkatu du, aurten baino 109 milioi gehiago

*Zenbateko hori diru-bilketaren aurreikuspenen igoeran oinarritzen da*

Miércoles, 30 de septiembre de 2015

Nafarroako Gobernuak 2016rako 3.478 milioi euroko gastu-muga finkatu du, hau da, 2015erako onartutako gastu publikoaren alderatuz (3.369 milioi euro), 109 milioi euro gehiago (% 3,23).

Zenbateko hori honako hauen arabera finkatu da: Nafarroarako egindako aurreikuspen makroekonomikoak, datorren urterako diru-bilketaren aurreikuspen hobeak eta aurreikusitako zor nahiz defizitaren betebeharrak, ezingo dutenak gainditu 2016an Foru Komunitateko Barne Produktu Gordinaren (BPGd) % 0,3.

Zehazki, Zerga Ogasunak 2016an finantzarioak ez diren 3.424.587.189 euro biltzea aurreikusten du. Haiei, zor-jaulkipen bidez lortuko diren 56.982.078 euro gehitu behar zaizkie; zenbateko hori defizit-helburua betetzeko gehieneko muga da. Azkenik, kopuru horien baturari Espainiako kontabilitateko doikuntzei dagozkien 3.473.840 euro kendu beharko zaie. Horrekin guztiarekin, 3.478.095.427 euroko gastu-mugara iristen da.

### Aurreikuspen makroekonomikoak

Zehazki, Foru Gobernuak kalkulatzen du Nafarroak datorren urtean % 2,9ko hazkundera izango duela BPGd-ean, 2015erako zegoen aurreikuspena baino hamarren bat gehiago (% 2,8). Horri buruz, aipatu behar da Foru Gobernuak berriki aurtengorako bere aurreikuspenak lau hamarren areagotu dituela urteko lehen seihilekoan datu makroekonomikoek izandako bilakaera ona ikusirik.

Joera horren emaitza, Gobernuak 2015erako enplegua % 2,2 inguru haztea aurreikusten du ere, eta beste % 2,2 2016rako; hau da, 6.000 enplegu sortuko ziren urte bakoitzean.

### Izapidetzea

Gastu-muga finkatu ostean, Departamentuek 2016rako gastu-proposamenak landuko dituzte datozen asteotan.



Proposamenak jaso ondoren, Nafarroako Gobernuak 2016rako Aurrekontuen aurreproiektua onartuko du, eta Nafarroako Batzorde Ekonomiko eta Sozialari igorriko dio txostena egin dezan; txosten hori, dokumentua proiektu modura onartu aurretiko pausoa da, Nafarroako Parlamentura bidali aurretik bertan eztabaida dezaten.